

 Konta Kontari




NEGUKO

BARAZKIAK ETA FRUTAK





LEHEN HEZKUNTZA



Negua abenduaren azken egunetan hasi
eta martxoaren azken egunetan
bukatzen da.



Urtaro hotza  eta egun laburrekoa 
bada ere, gure baratzeak ez dira erabat husten.
Bertan hainbat barazki eta fruta aurki
ditzakegu.



Baina, zein fruta eta barazki biltzen dira neguan?

NEGUKO BARAZKIAK




BARATZEKO BARAZKIAK

Neguan barazki berdeak eta zuriak dira nagusi. Baratzetan ondo hazten diren barazkiak dira, bere hostoak eta zurtoinak sendoak eta lodiak direlako.


Adibidez, brokolia, erromaneskoa, apioa, borraja, kardua, orburua, bruselaza edo porrua.



Baita azalorea, aza, naboa edo tipulak ere.



Azkenik, lekale batzuk: ilararak eta babak.




NEGUTEGIKO BARAZKIAK


Hotzarekin hostoak izoztu daitezkeenez, jende askok negutegiak erabiltzen ditu barazkiak hotzetik babesteko. Hosto fin eta handiko barazkiak dira egokienak negutegietan hazteko, besteak beste: letxugak, zerbak, eskarolak eta ziazerbak.



Baita lur azpian hazten diren barazkiak ere, hala nola,
azenarioa, erremolatxa edo errefautxo.



NEGUKO FRUTAK



Neguan zuhaitz gehienek hostoak galdu dituzte eta hiru hilabete hauek lotan ematen dituzte, udaberriak esnatu arte.





Baina ez zitrikoak, ez. Zuhaitz hauetako frutek kolorez betetzen dituzte gure dendak eta sukaldeak.

Badakizu zer fruta diren zitrikoak?

ZITRIKOAK

Ziur askotan jan dituzula: laranja, limoia, mandarina, lima, pomeloa edo kiwia dira Euskal Herrian ikusienak.



Zatika janda edo zukua eginda, denak oso onak dira.





Badira beste fruta batzuk
ere neguan jaten direnak.
Abenduan, mahatsak ditugu.
Jende askok urte-berri eguna
ospatzeko hauetako hamabi
jaten ditu. Zitrikoak bezala,
zukua oso gozoa dute.

Eta urte osoan: sagarrak eta
udareak, berdeak, horiak edo
marroiak izan daitezkenak.









FRUTA TROPIKALAK




FRUTA TROPIKALAK

Eta gu neguan gauden bitartean beste mundu erdia, hego hemisferian bizi direnak, bestelako frutaz gozatzen dituzte. Horietako batzuk gure dendetara iristen hasi dira.

Horien artean oso ezagunak egin dira azken urteotan Fruta tropikalak.



Maracuya: zapore garratza du eta barrukoa koilara batekin jan behar da, nahiko likidoa delako. Kanpotik morea edo horia izan daiteke.





Beste leku batzuetan pasioi-fruta deitzen diote ere.

Fisalisa: Bolatxo laranja bat da, nahiko garratza, eta kanpotik hiru hostoz babestuta. Garratza eta gozo arteko zaporea du.




Dragoi fruta: Kanpotik arrosa da eta barrutik zuria edo arrosa izan daiteke. Ur asko du eta zapore fina eta gozoa du.



Txirimoia: guztien artean agian gozoena. Kanpotik berdea da eta barrutik zuria. Hazi beltz nahiko handiak ditu, jaten ez direnak.

Azkenik, **Guayaba:** Kanpotik berdea da eta barrutik arrosa. Bere zaporea suabea da.



AZKEN GALDERAK

Ikusi duzunez, gure baratzeek hainbat aukera eskaintzen dizkigute. Hainbeste barazki izanda, zer plater prestatuko zenuke zuk?

Ba al da asko gustatzen zaizun neguko errezetarik?

Zein da zure neguko frutarik gogokoena?

Fruta tropikalak ezagutzen zenituen?

Konta Kontari

NEGUKO BARAZKI ETA FRUTEN BIDEOA IKUSTEKO:



@kontakontari

<http://youtu.be/IVZF9v2Ac9E>

IPUIN, JOLAS ETA HEZKUNTZA-BALIABIDE GEHIAGO:

www.kontakontari.com